

IPUINGINTZA: KOMUNIKAZIOA ETA PRAKTIKA LINGUISTIKOA

Donostia, 1992-III-27

Luis Maria Larringan

1. AURKEZPENA

Ez naiz “Ipuingintza” (“Kontularitza”...) anderearen jubilazio edo eretiro omenaldira etorri; ipuinlaritzak —adierazpen-molde gisa— jasan du dagoeneko erretiro eta murrizketarik. Joan denboretan zabal eta aukeran ibili izan da, gai eta betekizunetan, herritarren oniritzi beteaz ibili ere. Hala, euskal herri-narratibaren zati handi bat kontaketzako eta ipuingintzako ibilbidea jarraiki gauzatua dago.

Gizarte bakoitzak bere behar eta adierazpen moduei buruzko errepresentazioak egin ohi ditu. Ipuinak bere barnean daraman mundu erreferentzia galdu egin da neurri handi batetan behintzat, espresabide hori erabili, trebatu eta maitatu duen giza-taldea ere galtzen joan den heinean. Horrela, lehen “berek” zituen hainbat eremu galdu ditu egun kontularitza-ipuinlaritzak eta esparru eta maila jakin batzuetara bildu da. Beste adierazpen eredu batzuk behar ditu, noski, baliatu euskarak eta (herri)-narratibak. Demandaren askapena nonbait!

Baina, hemen ere —eta berriz ere— kritika behar da, beharren kritika eta zuriztapena. Gure ustetan herri-narratibak eta ipuingintzak merezi dute azterketa funtsezkorik, are gehiago euskal ipuingintza etendura zorian aurki baitaiteke: kanpoko murrizketaz gain barneko erosioa jasaten ari da. Guri geuri zenbait apendiz gaizatzeko abiapuntu aproposa iruditzen zaigu: a) bereganatzen duen komunikazio moduagatik; b) suposatzen duen praktika linguistikoagatik.

2. BI OHARTXO

2.1. Lehenengo ta behin, zer aztertzen den eta zertarako edota zer helbururekin estuki lotuak azaltzen direla baieztatu behar.

2.2. Bigarrenik, gure hurbilketa hobeto ulertua izan dadin, haren printzipio epistemologiko bat ekarri nahi nuke. Honela formula daiteke:

- a) Ipuingintza (kontularitza) hitzez gauzatutako ekintza bat da;
- b) Soziala da, izaeraz eta egitez;
- c) Kategorizapengarria da, hots, asmagarria, zirriboratu ahal da eta kokatu, bereizgarria eta berezitua denez.

3. IPUINGINTZA: KOMUNIKAZIOA ETA PRAKTIKA LINGUISTIKOA

3.1. Hiru termino ditugu. Beraien arteko erlazioak, honela ulertu behar dira:

<i>Komunikazioa</i>	Ihardute modu bat; Zer asmorekin ekiten zaio lanari?
<i>Kontularitza</i>	Ariketa.
<i>Praktika linguistikoa</i>	Praktika linguistikoa Hizkuntza- unitateen materializazioa.

Honenbestez, hiru alderditatik ikusmira daiteke ipuingintza: enunziazio gisa, elkarreragintza sozialeko gertakari bezala eta hizkuntza egitura gisa. Bestela esanda, kontularitza (ipuinaritza) zer eta gertakari diskurtsiboa eta gramatikala dugu, komunikazioa eta hizkuntza.

4. KOMUNIKAZIOA

Zer komunikazio mota dugu ipuina? Nolatan eragin ohi du? Saia gaitezen deskribatzen:

Ipuin bat kontaktzen hasterakoan, “motibazio” berezia du kontalaria; halaber mekanismo berezitu baliaturik mamituko du bere jarduna. Mundu jori bat adierazteko garaia da dudarik gabe. Esan nahi da hitz-hartze bereizgarria eta berezitu baten aurrean gaudela. Hitz-txanda honek baditu markatzaile propioak, hala hasierakoak nola bukaerakoak: “Bazen behin batean...”. “Behin batetan, bazen...”. “Eta holan bazan ezpazan sartu bedi...”, etab. Badugu, bada erritualik eta liturgiarik.

Herritar batek baino gehiagok (usteko ipuinlariak!) honela erantzun dio ipuin biltzaileari: “Nik ez dakit kontaktzen; urliak daki ipuinak kontaktzen”. Eta guztiok dakigu “dakit” eta “daki” horiek zer esan nahi duten: kontatu ohi du, kontaktzeko ohitura du.

Zer du eduki gisa hitz-txanda honek? Zer betekizun, zer espektatiba esleitzen zaio? instantzia bereizgarri eta berezitu bat dela esango dugu. Instantzia hau ez da hiztun arruntaren baliokidea. Praktika kontrastatua dugu. Ipuinetako komunikazioa atsegin emanez mamitu ohi da, lasaitasun eta jolas-inguruko keinuz dagerkigularik. Dibertimendua du kideko komunikazio honek. Laburbilduz, instantzia ludiko-artistikoa, lasaigarria eta lasaiunekoa da kontu-kontakteta.

4.2. Intantzia hau soziala eta historikoa da

Komunikazio mota honek bereganatu behar dituen osagaiez jakin beharra dauka kontu-kontalariak: zeren eta badira dagoeneko ipuinerako “bideak”, bada halaber eredu antzeko zerbait ere. Komunikazio hau praktikatu izan da eta horrexegatik da, agian, identifikagarria: usainez eta larmintsez. Kontularia ez da hutsetik hasten: izan da alde aurretiko lan bat, lan soziala (= askoren artekoa eta askorentzako) hain zuzen, baitan eta ataletan. Holakoetan zera esan ohi da, gizarteak baduela jardun honekiko irudikapen bat. Eta soziala den neurrian, historikoa gertatzen da. Bestela esanda, ipuina testu erreal bat bilakatu aurretik eta bilakatuko bada, jenero diskurtsibo baten izaerapean azaltzen zaigu. Horregatik, gizarteak badu dagoeneko aktibitate honekiko irudikapen eta informaziorik.

4.3. Komunikazio hau, funtsean, dialogikoa da

Esan nahi baita, ipuinlariak gauzatu testuak ez dira inola ere esatari individual baten iharduera sinbolikoaren emaitzak. “Dialogiko” terminoak diskurtso ororen barneko egitura adierazten du, egitura horrek betiere interlokuzio erlaziotan dauden bi enuntziatio-intantzien artean transitiboki funtzionatzen duelarik.

Behin baino gehiagotan iruditzen zaigu ipuinlaritzan ezarritako muga edo ezina ez dela gramatikarekikoa, ezta testuarekikoa soilik, hots, praktika linguistikorekikoa, kulturalekikoa baizik, hau da, komunikazioarekikoa.

Hiztuna “ipuinlariarena” egiten saiatuko da, nolabaiteko kohesio kulturala asmatuz eta gauzatzuz.

4.4. Intertestualitate diakronikoa eta sinkronikoa

Aurrean esandakoaren arabera, kontulariak “ofizioa” erakutsi behar du, itxura eman bere lanari. Maisutasuna ez bada ere, ofizioa bai behintzak. Horrexegatik, ipuingintzako enuntziatuek badute elkarren berri-

rik, ez dira elkarrekiko askeak: “Behin batetan...”, “egun baten...”, “urteak joan eta urteak etorri...”, “mendian zebilela... agertu zitzaion”... Etabar. Badakigu horien izateaz eta egiteaz. Badakigu, halaber, zertara gauden bakoitza. Horrela bakarrik “pasatzen da” ipuina: benetako trukatzea gauzatuz. Emailearen poetikapean eta jasotzailearen estetikapean. Hortik dira moldaerak, egokitzapenak, bertsio berriak. Bestela ez du korritzen ez historian ez partaideen artean.

5. PRAKTIKA LINGUISTIKOA

5.1. Produkzio egoera

5.1.1. Kontalariak (esatariak, ekoizleak) ez du bere burua egoera barneko “ni” gisa enuntziatzen.

– “Ni-orain-hemen” kategoriaren abstrakzioa praktikatzen du: “Behin bizi omen ziren ama eta bere alaba...”, “Garai hartan, lapurrak eliz atarian bildu omen ziren...”.

Daitekeena da “ni” agertzea, baina ez dagokio pertsona fisikoari kontulariari baizik, hots, instantziari. Kasureko, “nik ez dakit zenbat gauza zituen, edota zelako gauzak esan zituen...”, hor lekuko bailitz ari da mintzatzen (“nik” ez jakitea “zuk” ere ez jakitea litzateke; “batek badaki...”). Pertsona fisikoa, oster, ipuin bukaeran ager daiteke, ipuin espaziotik kanpo, “Nire aita zenari entzuna” esanez, kasu. Hemen “nire”, dudarik gabe, deiktikoa dugu.

– Zeinutik-zeinura enuntziatzen da ipuingintzan:

“Biharamunean”; “bezperan”; “etxe ondoan sagazti bat zegoen; baze- goen han zuhaitz bat... bere azpikaldean...” zera esan nahi dugu, diskur- tsotik bertatik enuntziatzen dela:

- Anaforak (diaforak) erabiliz;
- Testu barneko ko-erreferentzia burutuz;
- Narrazio-intantzi autonomoa eraikiz;
- Testuratzen diren objektu desberdinak testu barnean kokatuz, bat besterekiko, eta ez egoera fisikoarekiko.

5.1.2. **Deserdirapena** praktikatzen da:

– Objektotasuna gauzatuz;

– Enuntziatzailea gertatukoaren lekuko gisa azaltzen zaigu, berrie- maile hutsa bailitz.

– “Objetotasunez” esatea ez doa subjektibitatearen aurka.

– Besteak beste, hor dira printzipioak, axiomak, esaerak, esapideak, bertso zatiak, jeneralizaziobidezko formulak... zer eta norberaren ideiak, usteak, iritziak... “deserdiratzeko” hain zuzen.

5.1.3. Hala ere, eta esan bezala, ipuinlariak izan ohi du “subjeto-tasuna” gauzatzeko aukerarik.

5.2. Praktikaren egituraz

Esan bezala, ipuinlariaren txanda ez da hiztunarena. Burutu behar diren kontrol eta aukerak ez dira berdinak. Urrats jakin eta funtzional batzuk jarraiki gauzatua agertzen zaigu, haren jardunean eskema antzeko zerbait zirriborra daitekeelarik. Egia esan, eskemaren atalak kategoria narratiboak bilakatzen dira. Kontrola, bestalde, kontalariaren esku gelditzen da. Zentzu honetan monogestiobidezko testua dugu ipuina.

5.3. Kohesio estrategiak eta baliabideak

Hona hemen identifikazio estrategiak eta baliabide linguistikoak:

a) Artikulu zehaztugabea/zehaztua: “bat vs –a”.

b) Pronominalizazioa. Kontuan izan ipuinak antropomorfismorako duen joera. Dena den, euskal izenordeek generoaren markarik ez eta, beraien identifikatze-ahalmena ahula suertatzen da; horregatik, maiz beste termino batzuk erabili ohi dira; adibidez, “Eta orduan *neskak...*”, etabar.

c) Ordezkapenak. Erreferente bera adierazteko izen edo adierazle desberdinak erabili ohi ditugu. Ez da sinonimiaz nahastu behar. Ipuinetan oso estrategia eta baliabide bitxiak aurkitzen ditugu. Kasureko, demagun “esan” terminoaren ordezkoa(k) behar dugula. Hiztegian honako hau agertzen zaigu: “erran” (Cfr. *sinonimoen hiztegia*, Adorez 3, “Bostak Bat”, Elkar, 1988). Hona, ordea, diskurtsoaren arabera sortutako besteok: “... ahoskatu zion...”, “... erantzun zion...”, “... gaineratu zion...”, “... erantsi...”, “... bota zion...”, “... oihuka hasi zen...”, “... deiadarrez...”, “... honela mintzatu zen...”, “... ihardetsi zion...”, “... kontrajarri zion...”, etabar.

Aipagarria da ondorengo ordezkapen estrategia. Ordezkatutako elementua “Pello ehiztaria” da. Hona ordezkatzaileak: “Gizona”, “senarra”, “aita”, “gure protagonista”, “gizajoa”, “adiskidea”, “laguna”, “papaotzarra”, “hanka bikoa” (“hor dabil beste hanka biko hori nire atzean” –esaten du *Erbik-*), “eskopetaduna”, “gezurti” (horrela deitzen baitzioten herritarrek), ...

Identifikapena, esku-aldatuz, ikuspuntuaren arabera gauzatutzen da dudarik gabe.

Hau guztiau oso lotua dago hala kontularitzaren poetikarekin nola jasotzailearen “estetikarekin”.

c) Elipsia. Balibide honek adierazkien ekonomigintzan ezeze kohe-siogintzan jokutzen du, memoria diskurtsiboaren aktibaketa suposatzen baitu.

5.4. Konexio estrategiak eta baliabidek

Ipuina gertaeren, jazoeren, ekintzen eta abenturen kontaketa da. Baina guzti hori antolatu beharra dago: lehenbizi hau, gero beste hori, hurrengoko harako hura, ondoren beste hau... Areago, ipuinak *iraupen* bat eta *denpora* bat izaten ditu. Halaz ere, denpora eta iraupen hauek ez dira erlojuarenak. Gure ipuinetako erjolua autorearen eskumenean dago, hark jartzen baitu martxan, berak bakoitzean-bakoitzean eta sailean-sailean hara-hona erabiltzen. Ordu eta momentu guztiek ez dute iraupen eta garrantzi berbera. Ordu batzuk beste batzuk baino luzeagoak dira eta garrantzi handiagokoak. Aldi batzuk aipatu egiten dira, beste batzuk azpimarratu; asko eta asko seinalatu gabe gelditzen. Garai batzuk “denpora haundi” dira, beste batzuk ez dute inolako “entitaterik”. Zenbait momentuk gogotik eta biziro balio du, askok eta askok piperrik ere ez. Ipuinetako denporak berebiziko antolaketa eskatzen du, tentsioaldiak, dramatismo uneak, korapilotze aldiak,... sortaraziz. Hala nola:

- Arriskualdiak eta lasaialdiak.
- Korapilotze aurreko aldiak, irtenaldikoak.
- Aldi batzuk luzeak dira: Hala lorik ezineko gauak.
- Zenbait gertaeren denpora “bapatekoa” da, “ustegabekoa”, “bere-halakaoa”, “halabeharrezkoa”...
- Jazoera batzuk “puntu-puntuan” suertatzen dira, “etortzeaz bate-ra”, “ikusi bezain laster”, “hartaratu baino lehen”...

Guzti hau gauzatu nahiez gero, bada, hizkuntza-unitate egokiz baliatu beharko da ipuinlaria eta modu egokian bideratu. Bestela esanda, bitartekariak beharko ditu izan eskura, narrazio-antolatzaileak hain zuzen ere. Ez goaz hemen aipatzera.

5.5. Erreferentea eta lexikoa

Existentzia irrealen predikaziobidea da ipuingintza. Irudimenez esan-dako guztia baliagarria da kontu-kontaktetan. Oso atsegin du hiztegiaren erabilera “estetikoa”.

Aukera aparta du ipuinlariak kreatiboki gauzak aditzera emateko, fikzioa komunikatzeko. Ipuina ez da ikasgaia. Haatik, “pasatu” egin behar du, igaro eta eragin. Zerk garamatza ipuinetara?

- Jazoerek, abenturek, ixtorioek.
- Esaera baten egiatasunak.
- Ziria sartu beharrak.
- Barrea gogotik egin beharrak.
- Gertakizun baten epikotasunak.
- Bertso batzuek.
- Pareatu bateko pentsamendu sakonak.
- Giza konportamendurako adibideak jarri gurak.
- Erabaki baten zuhurtziak.
- Etabar.

Horregatik edo, denetarik izaten ahal da ipuinetan: elkarrizketak, txisteak, magiazko hitzak, bertsoak, pareatuak, azalpenak, konbentzimen-dua eragiteko pasarteak... Nahiko zaigu honako hau ipuinbidean jartzeko: “Aizia buruan eta ibili munduan, kasu (Ikus Urruzuno, P.M. *Ipuiak*, Iruña'n, 1930).

Honenbestez, ipuinetako errealitatea ez da zientziei zor zaien hura. Ipuinetako terminoek zeharka adierazten dute: metaforari dagokionez, gonparazio modura, alegoria medio, adierazpen irudidunez,... hiztegi-leen arduetatik urruti xamar arituz beti ere. Termino mozorratuak eta mozorrodunak dira. Eta hau horrela dela frogatzeko izen-deitura eta izen-ezizenetara jo besterik ez dago, deskribapen-funtzioak betetzen baitutuzte askotan. Beste hitzetan, denotaziozkoak ezeze konnotaziozkoak suertatzen dira. Kontu honek berebiziko garrantzia du ipuingintzako herri-narratiban: izen eta ezizenak medio, pertsonaiei buruzko deskribapenak egin ohi dira, hala fisikoak nola psikologikoak edota moralak (*Tripot, Sasieta, Burduntzi, Mordoillo, Pakerre, Zirillo Zirikote, Koxe Kuxto...*).

Zentzu honetan, ipuinetako lexikoaren erabilerak funtzio “poetikorako” bidea egiten duela esan genezake.

Maite ditu, bestalde, antonimoak, onomatopeiak (“taka-taka”, “tarrapatan”...), hitz magikoak (“Abrite portas, klis, klas; Zerrate portas, klis, klas”), osagai zirkularrak eta erredundagarriak, errepikapenak. Halaber, txitean-pitean agertzen zaizkigu formula bitarrak (asko lokuzio bihurtu direnak) eta esapide klitxetuak: “Ez gaur, ez bihar”; “zeruan eta lurtean”; “gizon eta emakume”, “joan eta joan”, “goiak miatu, beheak miatu”, “irri eta ziri”, ...

Egia esango bada, baliabide guztiok edo asko ipuinetan izan daitezten benetazkoak behar du izan kontu-kontaktak. Esan nahi da ez dela nahikoa “ipuinaren berri” eman nahi izatea.

6. ONDORIO ETA JAKINGARRIAK

Itzul gaitezen aurkezpena: ipuinlaritzari zer eta pena merezi duen hizkuntza-iharduera deritzogu. Ez du denetarako balio, ez da iharduera bakarra ere, baina ez da inola ere praktika kaikua edo besterik ezean gauzatutakoa. Ez da “umekeria” ere. Zenbait kasutan baliogarria ezeze behar-beharrezkoa iruditzen zaigu. Hortik, bada, gure eskabidea. Eskabide justifikatua, gainera. Zernolako hizkuntza-erabilera gauzatzen duen ikusiz, hainbat apendizai burutzeko lanabes aparta eta aproposa suertatzen dela esan dezakegu ipuingintza. Besteak beste:

a) Diskurtsu girotuak suposatzen duen bapateko praktikatik erabile-ra “autonomora” garamatza, *egoerarekiko abstrakzioa* eginez iharduten baita ipuinean.

b) *Deserdirapena* medio, esataria testu barneko enuntziatzailea dugu, hirugarren pertsonan emana.

Horrela, maiz, norberaren iritziak, usteak, esateakoak,... ekartzeko besteen ahoz baliatu ahal da, hala nola, bertso zatiz, jeneralizazioz, pareatuz, esakunez, esamoldez, etabarrez.

c) Esana dugu ipuingintzako hizkuntza-iharduerari nolabaiteko *tinkotasuna* dagokiola. Badakigu, bestalde, tinkotasuna, iraupena, eskuragarritasuna... hizkuntza- idatziari eransten dizkiogun tasunak direla. Kasu batean papera baldin bada euskarria, bestean memoria da gordegailu. Idatziari buruz honako gauzak entzun ohi dira:

“Quod scripsi, scripsi”: Idatzi nuena idatzi nuen. Beraz ezinezkoa da aldatzea.

Edota beste hau:

“Verba volent, scripta manent”.

Lehena, Pontzio Pilatoren erantzuna da, juduek galdetzean ea zergatik Jesusi “juduen errege” delako hura ezarri zion. Egun erraztasun handiago dugu behin idatzitakoa aldatzeko!

Bigarren esaldiari dagokionez, ipuinaren kasuan gauzek iraun egiten dute, errepika ahal dira, belaunalditik belaunaldira eskura ahal ditugu. Beraz, “non tantum scripta, verum etiam verba manent” esan beharra legoke.

Guzti honekin zera azpimaratu nahi genuke: egoerarekiko abstrakzioa, deserdirapena eta tinkotasuna medio, ipuinbidezko hizkuntza- praktikak ahozkoaren eta idatziaren arteko artikulazioa errazten duela, zubia-rena eginez. Hala, ipuin bidez errazago joan ahal da ahozkotik idatzira eta idzatitik ahozkoa.

d) Kontu-kontaktetan —ipuingintzan— aldaketa artebidea bilaka daiteke, bariazio eta bertsio propioak gauzatzeko aukera ematen baitzaigu. Egia esango bada, ipuingilea (ipuinlaria) transformazio sistemaren erdi-erdian aurkitzen da: jasotzailearen araberako moldaerak buru ditzake, kultura- erreferentzia berriak gauzatzeko (tokikoak, agian), esaerak, etabar luze bat. Esan nahi baita ipuin testua ez da ikutu-ezinezkoa, bere horretan behin betirako emana.

e) Ildo honi jarraikirik, testu-mailako lanetarako abiapuntu egokia iruditzen zaigu, “aldatzen den hori”, “ukitzen den hori” ez baita perpau-sa, zati osoago bat baizik, testu atal bat, hain zuzen.

f) Arlo hau bukatzeko, ipuina literaturarako sarbide gerta daitekeela esan behar. Baina hau nik baino hobeto jorratuko du Bernardo Atxagak (Yoseba Irazu jaunak). Dena den, ipuinari konnotazioa zor zaio; halaber, isotopia eta zentzu- dentsitatea.

Ezin uka, beraz, ipuinak (suposatzen duen komunikazio, enuntziatio eta hizkuntza-praktikagatik) balio “iniziatiko” ugari eskaintzen duela, zenbait apendizai burutzeko hasi-masiak eskaintzen dizkigula. Hortik, ipuinaren zenbait bitartekaritza.

Nire iharduna bukatzeko bizpahiru ohar egin nahi nituzke:

1. Ipuinak jasotzea ez da “ipuingintzaren” baliokidea. Ez dago hor ez komunikazio errealik, ez errekreazio motibapenik. Egia esan, euskal ipuingintzari errekreazio estetikoa eta jarraipena falta zaizkio. Bada gure artean etendura antzeko zerbait.

2. Bada ipuinaren “pedagogizazio” bat ere, non ipuina “edukinik” gabe gelditzen den, ez ur ez ardo bilakatuz: dena orain aldian, etabar.

3. Ipuinetako narratiba ez da “iruzkina”: ez jazoerena ezta marrazkiena ere.